



30 urte

Baserriaren, sagardoaren eta herri kirolen alde ereiten

GOLDEA elkarteak gure herriko baserriaren jardura sozioekonomikoa eta kulturala sustatzeko, sagarra eta sagardoaren kultura bultzatzeko eta herri kirola gauzatzeko sortu zen 1992 urtean. 30 urteko ibilbide horretan 250 ekintza baino gehiagoren sortzaile eta antolatzaile izan gara, eta horretan jarraitzekoak gara.

BASERRIA: egoera sozioekonomikoz eta kulturalaz ikerketak eta ekintzak




SAGAR / SAGARDOA: sagar uzta, sagardogintza, kizki-egunak...



HERRI KIROLAK: txapelketak, herritarren arteko probak, desafioak...





Goldea, izenak berak dioen bezala, gure soroetako lurra goldatzeko eta baserriaren sustapenean sustrai berriak ereiteko tresna gisa sortu zen: nekazaritza, baratzezaintza, abeltzaintza, sagardogintza, kultura edo kirol jarduerak. Besteak beste, ohiturak, hizkuntza eta ingurune naturalaren zaintza.

1992ko maiatzean ekin zion bideari, udalerrian baserriaren, sagardoaren eta herri kirolaren inguruko jarduerarik ez zegoelako kezkatuta zeuden lau lagunek talde batekin. Hastapenak zailak izan ziren, baina, aldi berean, ilusioz betetakoak, aukera ugari eskaintzen baitzitzaizkien herritarrei gure nortasunaren zati bat ezagutzeko, ordurarte oso ikusgarria ez zena.

Gure ibilbideko hiru hamarkadetako bakoitzak bere ezaugarriak izan ditu. Hala, lehenengoan, San Isidoren eta Santa Anaren ospakizunak finkatu ziren, eta elkarteak taldea zabaldu eta helburuak hobeto garatu zituen.

Bigarren hamarkadan, 2000 eta 2010 bitartean, ekimen ugari sortu ziren, baserriko jarduerak eta herri kirolak uztartzen zituztenak, edo sagardogintzaren eta sagardoaren sustapen kulturalarekin zerikusia zutenak. Tarte horretan, baserritarren egoera sozioekonomikoaz azterlana egiteko eskaera aurkeztu genuen 2008an.

Garatutako ekitaldi aipagarrien artean honako hauek izan ziren: idi-proba edo giza proba (3.298 kiloko harriarekin); baserriko lanak egiteko gaitasunei buruzko lehiaketak auzokoen artean; Federazioarekin egindako txapelketak; Sagar uztia jaietan 10.000 litroko kupel bat eraikitzea edo Kizki egunaren ekimena zazpi urtez, eskualdeko zazpi udalerriekin elkarlanean.

Aipatzekoa da baserritarren azterlanaren ondorioz gaur egun martxan dagoen "Baserri mahaia" izeneko lan-batzordea. Horri esker baserriaren sustapenerako hamaika ekintza lantzen ari gara.

Azken hamarkada bultzada handia izan da elkartearentzat; izan ere, erakutsitako antolakuntza-gaitasunarekin batera, aintzatespena gehitu zaie bere ekimenekin egindako lanari eta ibilbideari. Herritarrek, sektoreko beste elkarte batzuek eta administrazio publikoek, batez ere gure udalak, erakutsi dute aintzatespen hori. Aipatzekoa da baserritarren azterlanaren ondorioz gaur egun martxan dagoen "Baserri mahaia" izeneko lan-batzordea. Horri esker baserriaren sustapenerako hamaika ekintza lantzen ari gara. Esaterako, aurtengo San Isidro egunean gauzatuko den "Baserritarren laguna" ekimena.

Hogeita hamar urte igaro dira, eta Covid pandemia jasaten ari garen arren, gure jarduerekin gogotsu jarraitzen dugu. Hainbat arlotan egiten dugu ekarpena, gure ekarpen txiki baina zintzoa eskainiz.

Gaur egun, Hirigintza Plan Orokorren Aholkularitza Taldean (baserriari lotua), Sagardoetxearen inguruko gogoetari buruzko lan-taldean, Astigarraga 100tzen ekimenean, Herri Kirol Federazioaren bileretan edo udalerrian egin ohi diren bileretan parte hartzen dugu.

Hasierako ilusio berarekin jarraitzen dugu, baina badakigu garai berriek erronka berriak ekarriko dizkigutela. Erronka horiei aurre egiteko prest gaude, bizilagunen laguntzarekin eta belaunaldi berrien lankidetzarekin.

Bidean elkar ikusiko dugulakoan!!!
GOLDEA Elkartea